

0-3 ZIKLOA. Javier Madrazoren sailak atzera egin, eta agindua zabal interpretatuko duela esan du, kritiken ostean

Bekak «zentro mota guztiek» eskatu ahal izango dituztela dio Jaurlaritzak

Sare publiko gehiena kanpo uzten du, haurrek ziklo osoko zentroetara joan behar baitute

Luis Karlos Garcia | GASTEIZ

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Arazoetarako sailak atzera jo, eta, iragan asteartean, onartu egin behar izan du zabal interpretatuko duela iragarritako 0 eta 3 urte bitarteko umeen familientzako beka agindua. Halaxe egin du azken egunetan izandako bilera nahiz telefono deialdi ugarietan, eta berdin egin zuen, atzo, jendaurrean, haur hezitzaile eta Javier Madrazoren saileko teknikari Patxi Coirak, Gasteizen, Udalak 0-3 zikloaz antolatutako mintegi jendetsuan.

Kontua da, Eusko Jaurlaritzaren aginduak baldintzatzen jarritzen zuela, bekak eman ahal izateko, umeak ziklo osoa eskaintzen duten zentroetan izena emanda egotea. Horrek, atzoko biltzarrean bertan publikotik salatu zutenez, «sare publikoaren aurkako ondorio guztiz kaltegarria» edukiko luke, laguntzetatik at lagako bailuke aipatutako sarearen zati gehiena (Madrazok sare publikoaren aldeko neurritzat hartu zuen agindua, aurkezpen prentsaurrekoan).

Coirak, auziaz zuzen itaunduta, agindua zabal interpretatzeko asmoa aipatu zuen: «Zentro mota guztiek eskatu ahal izango dituzte laguntzak». Aitortu behar izan zuen arazoa izan zela agindua «korrika eta presaka» onetsi behar izan zutela, Familia Planean dirua erabiltzeko zegoela eta, Hezkuntza sailak zi-



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Hezkuntza alorreko ordezkari ugari bildu ziren, atzo, Gasteizen.

kloa arautzeko dekretua onartzen ez zuela ikusita.

Bestalde, Anjeles Iztueta Hezkuntza kontseilariaren taldea egiten ari den dekretuaren zirriborri ere kritikak egin zizkion atzoko mintegian bildutako jendeak; batez ere, «ez duelako eskaintza publiko sendoa egiten eta sare pribatuari mesede egiten diolako».

Laguntza izaera aztergai

Gasteizko jardunaldian bildu ziren, Eusko Jaurlaritzako Patxi Coiraz gain, Francesca Majo psikopedagogo, Menorcako

Vicens Arnaiz aditua eta Nafarroako Alfredo Hoyuelos doktorea, denak Luis Mari Elizalde irakasleak gidaturik.

Solasaldiek heldu zioten 0-3 zikloaren laguntza ezaugarriari. Coirak «tranpatzat» jo zuen hezkuntzaren laguntza izaera, eta erantsi zuen laguntza jite bera dagoela «bi, zazpi edo hamar urterekin, gurasoek seme-alabak nonbait laga behar izaten baitituzte beti». 0-3 zikloan, laguntzaileek nahiz eta kasleek diru kopuru bera irabazi behar dutela azpimarratu zuen, «lan bera egiten dute eta».

Coiraren bide beretik jo zuen Francesca Majok ere, «haur eskoletan, den-dena hezkuntza alorrekoa baita guztiz». Adituak gaineratu zuen umeei kakak ez dizkietela garbitzaileek, kentzen hezitzaileek baizik.

Hoyulosek esan zuen, finean, laguntza ikuspegiak pentsarazten duela haurrek ez dituztela beharizanak baino, eta, ondorioz, «karitatez» jokatu behar dela. Ikuspegi «kristau» hori baztertu, eta era politiko batean begiratzeko eskatu zuen, «haurra eskubideak dauzkan pertsona baita».

NAFARROAKO EGOERA

Hoyuelos: «Onena opa diot, hots, porrot egin dezala»

Nafarroako Gizarte Ongizaterako Institutuak 0-3 zikloko zentroak jartzeko ebazpena plazaratu zuen, eta, horri esker, Filosofia eta Hezkuntza Zientzietako doktore Alfredo Hoyulosek Gasteizko mintegian azaldu zuenez, «Gobernua harro-harro dabil aitzindaria dela esanez, zentroak han-hemenka agertzen ari baitira». Alta, Hoyulosen ustez, prozesua «ilegal-tasunez» eta, langileen eskubideen alorrean, «duintasunik gabeko egoera larriez» beterik da.

Hoyulosek ohartarazi zuen hobe dela ebazpena Hezkuntzak ez egitea, eta salaketa zorrotza egin zuen: «LOGSeren gutxieneko baldintzak ez ditu betetzen, titulazioak direla eta». Iruñeko Udal Haur Eskoletako koordinatzaileak aipatu zuen Gobernuaren ustea dela ume bakoitzak, urteko, 3.125 euro inguruko kostua izatea; eta, beraz, sosak langileen soldatetatik kenduko dituztela, eta udalek dirua jarri behar dutela (udalek zerbitzuak kudeaketa pribatuaren esku lagako dituztela aurreratu zuen; eta horrelakoek lan eskubideak murrizten dituzte).

Hoyulosek ez zuen beldurrik izan «porrota» espero duela esateko: «Nik porrota opa diot, eta, hala eginez, onena opa diodala uste dut. Izan ere, jai daukagu frogatzen baldin bada sistema badabilela ume bakoitzeko 3.125 euroekin». Gainera, Nafarroako Gobernuaren «muntaketa ilegala legezatzeko batzordea» eratu izana kritikatu zuen. Eta hori dena Gasteizko Udaleko PPko mandatarien aurrean...



Osakidetza
Servicio vasco de salud



OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA 2002ko ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA

Azaroaren 21ean eta 28an, ondoko zerrendan agertzen diren kategorien azterketak izango dira, Sondikako lehengo Aireportuan (Asua-Erletxes errepidea-Sondika-Bizkaia), Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak deitutako aukeraketa-prozesuaren barruan:

DATA	ORDUA	KATEGORIA	ZONA
02-11-21	13.00	GOI-MAILAKO TEKNIKARIA (2. ariketa)	3
02-11-21	9.00	BFE KIRURGIA OROKORRA ETA APARATU DIGESTIBOA (1. ariketa)	2
02-11-21	13.00	BFE KIRURGIA PASTIKOA ETA KONPONTZAILEA (1. ariketa)	2
02-11-28	13.00	BFE KIRURGIA OROKORRA ETA APARATU DIGESTIBOA (2. ariketa)	2
02-11-28	13.00	BFE KIRURGIA PASTIKOA ETA KONPONTZAILEA (2. ariketa)	3

Zonak noiz irekiko diren: Probaren hasiera ordua baino 30 minutu lehenago.

Zonak noiz itxiko diren: Aurreikusitako orduan; proba hasi ondoren ezin izango da inor sartu zonetara.

Informazio gehiago behar izanez gero, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Giza Baliabideetako Zuzendaritzara jo dezakezu, telefono hauetara deituz:

• 945 006 004 • 945 006 176 • 945 006 150

Emaitzen berri jakiteko telefonoa: 906 420 600.

0,09 € dei bakoitzeko + 0,67 €/minutuko (astelehenetik ostiralera, 08:00-20:00) + BEZ.
0,09 € dei bakoitzeko + 0,61 €/minutuko (astelehenetik ostiralera 20:00-08:00, larunbat, igandea eta jaiegunetan) + BEZ.

www.osakidetza-svs.org.



Osakidetza
Servicio vasco de salud



2002ko ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA

Datorren azaroaren 29an hizkuntzen probak egingo dira Sondikako lehengo Aireportuko Terminallean (Asua-Erletxes errepidea-Sondika-Bizkaia), Osakidetza deitutako zenbait hautaketa-prozesuren barruan, ondoren zehazten diren orduetan:

ORDUA	HIZKUNTZA
12:30	ALEMANA
16:00	INGELESA
18:30	FRANTSESA

Proba horietan hurrengo baldintzak betetzen dituztenek bakarrik parte ahal izango dute:

a) A Taldeko kategorien hautaketa-prozesuetan parte hartzea, beti ere deialdiaren oinarrietan ingeleseko, frantseseko edo alemaneko probak egiteko aukera ezarrita badago.

b) Oposizioaldiko probak gaindituta izatea. Aurreko paragrafoan zehaztutako kategorien bateko proben emaitzak oraindik publikoak ez badira, hautaketa-prozesu horietan parte hartzen duten izangaiek ere egin beharko dituzte iragarki honetan deitzen diren hizkuntzen probak.

Zonak noiz irekiko diren: Probaren hasiera ordua baino 30 minutu lehenago.

Zonak noiz itxiko diren: Aurreikusitako orduan; proba hasi ondoren ezin izango da inor sartu zonetara.

Informazio gehiago behar izanez gero, Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuaren Giza Baliabideetako Zuzendaritzara jo dezakezu, telefono hauetara deituz:

• 945 006 004 • 945 006 176 • 945 006 150

www.osakidetza-svs.org.



Bergarako Udala

IRAGARKIA

Gobernu Batzordeak 2002ko azaroaren 4an erabaki zuen Bergarako Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen A-47 Areako (Angiozar auzoa) 47.1 eta 47.2 Exekuzio Unitateetako Xehetasun Azterlanari hasierako onarpena ematea.

Hirigintza Planeamenduko Araudiko 140. artikulua eta Hirigintza Plangintza eta Ku-deaketarako tresnak izapidetzako ekainaren 30eko Eusko Legebiltzarren 17/94 Legeko 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, espedienteak hamabost egun jendaurrean jarrita egongo da. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarki hau argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak espedientea ikusi eta aztertzea eta hala balegokio alegazioak ezartzeko.

Bergaran, 2002ko azaroaren 15ean.